ASTEKARIA - 2011ko urtarrilaren 14an - XV. urtea - Usurbil, 433. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua !!



Gernikako Akordioarekin bat egin dute herritar askok




Erretzea debekatzen duen legea ondo hartua izan da

## Kea kalean, bakea barruan


URDAIRA
Sagardotegia
Sagardo naturala
Urtarrilaren 15ean irekitzen dugu!
astelehenak itxita
Aginaga
943 37 26 91


Marije
Arropa denda
-%30
Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL


ARTZABAL BASERRIA
Artzabal
Eguneroko menua 9€
Ostegunetik Igandera menu bereziak
Pintxoak: hotzak eta beroak
Kazuelitak...

## Albistea iruditan

# Igandean, puntako bertso-saioa Sutegin

Igande honetan, oihartzun handiko lau bertsolari igoko dira Sutegiko oholtza gainera: Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Unai Iturriaga. Gai jartzailea etxekoa izango da, Inaxio Usarralde.

18:00etan hasiko da bertso saioa. Sarrerak duela bi aste jarri ziren salgai: 5 eurotan, Oiardo kiroldegian eta Txiribogan.

Egunean bertan, 8 eurotan salduko dira Sutegiko atarian.

Udaletxeak eta Bota Punttuba taldeak antolatu dute igande honetako bertso saioa.



UXUE ALBERDI ETA ANDONI EGAÑA, HITZALDI BATEAN. USURBILEN, KANTUAN ARITUKO DIRA UNAI ITURRIAGA ETA ONINTZA ENBEITAREKIN BATERA.

Noaua!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

GERNIKAKO AKORDIOAREN AURKEZPENA ____ 5. OR.

KRONISTAK KALEJIRAN ____ 6. OR.

LURRALDEAREN ZATIKAKO PLANA ____ 8. OR.

TABAKOAREN LEGEAREN ERAGINA ____ 10. OR.

SAN SILBESTRE LASTERKETA, IRUDITAN ____ 12. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAAN

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza











JOXE PIÑAS

# Adibideak

Gatazka, indarkeria, biolentzia, mehatxuak,...
Bakea, akordioa, demokratikoa, politikoa,...
Bidea, aterabidea, konponbidea, irtenbidea, eskubideak... eta adibideak:

1. Venezuela: Hugo Chavez 1992. urtean koronela izanda kolpe militar baten bidez saiatu zen indarreko gobernua aldatzen. Baina matxinadak frakasatu zuen eta bi urte atxilotuta igaro zituen. Kartzelatik atera eta bere mugimendu (Movimiento V República Alderdia) politikoki hautagai izateko prestatzen hasi zen, horrela 1998. urtean demokratikoki presidentea hautatuta izan zen botoen %58arekin. Gaur egun presidentea izaten jarraitzen du.

2. Nikaragua: FSLNk (Fronte Sandinistak) 60. eta 70. hamarkadetan gerrila osatu eta iraultzaren bidez, 80. hamarkadan boterean egotea lortu zuen. 1990. urteko hauteskundeak galdu zituen eta gero oposizio politikora pasa zen, baina 2006. urtean hauteskundeak berriro irabazi zituen. Daniel Ortega, gerrilaren komandante ohia, Nikaraguako gaur egungo presidentea da.

3. El Salvador: FMLN gerrila eta gobernuaren ejertzitoaren arteko guda zibilak, 1980tik 1992ra arte iraun zuen. Pasa den 2009. urtean talde gerrilero ohia, alderdi politikoa bezala antolatuta, lehenengo aldiz hauteskundeak irabazi zituzten eta orain gobernatzen ari da bere herrialdean.

4. Brasil: Brasilgo PTk (Partido dos Trabalhadores) pasa den urrian hauteskundeak irabazi zituen eta honen ondorioz Dilma Rousseff presidentea bihurtu zen. Emakume honek 1967-70 urteetan gerrila ezberdinetako kidea izan zen. Espetxetik atera eta gero alderdi politikoetan militantzia hasi zuen, eta azkenik, 2001. urtean PTn sartu zen.

5. Uruguay: Jose "Pepe" Mujica uruguaitarra (bere arbasoak gipuzkoarrak dira, Tolosakoak hain zuzen), 60. eta 70. hamarkadetan "MLN-Tupamaros" hiriko gerrilan aritu zen. 1972 eta 1985 arteko urteak kartzelan igaro zituzten. Azkenean, 1985. urtean, amnistia lege bati esker, askatu zuten. Orduan, borroka armatua laga eta "MLN-Tupamaros" talde politikoa bihurtu zen. Talde honek apustu eta estrategi politikoa finkatu eta 1989. urtean "Frente Amplio" ezker koalizioan integratzea lortu zuen. Hurrengo hogeita hamar urteetan lan politiko eta sozial handiko urteak izan ziren, eta emaitzak 2009. urtean jaso zituzten; Mujica hautagaia izanda, Uruguayko hauteskundeak "Frente Amplio"-k irabazi baitzituen, gerrilero ohia presidentea bihurtuz.

Pertsona eta talde hauek, borroka armatuaren fasea arrazoi ezberdinengatik atzean utzi zuten: baldintza politikoak demokratizatu zirelako, fruituak jasotzeko momentua zelako edota bide horrek ez zuelako etorkizunik,e.a.,... Orain, bere herrialdeetako alderdi eta agintari politiko nagusienak bihurtu dira, baina horretaraino iristeko, denek eman zituzten zegozkien pausuak. Beste etapa ahal izan zuten ireki, eta jakin ere.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - **Joxe Piñas** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-mika!!

# Legegintzaldiko balantzea

2007-2011 legegintzaldiko azken txanpan gaude, eta agintaldia amaitu aurretik, egokia iruditu zaigu geldialdi txiki bat egin eta lau urte hauetan egin dugun eta egin ez dugun lanaren inguruko balantzea egitea. Komenigarria deritzogu errepaso hori egitea, eta, gainera, ikuspegi autokritiko batetik egin nahi izan dugu. Ezker abertzalearen iritziaz gain, herritarren iritziak, kritikak eta ekarpenak jaso nahi ditugu. Azken batean, herritarren iritzirik gabe, gure jardunak ez bailuke zentzurik. Hori baita gure lanaren akuilu eta iparrorratza. Gainera, legegintzaldia amaitzeko hilabete gutxi falta direla ikusita, herritarren ekarpenen bidez, ahalik eta zuku gehiena atera nahi diogu azken txanpa honi, eta azken sprint-a egin gure asmo eta proiektuak aurrera ateratzeko. Ahaleginak, beraz, ez dira faltako.

Balantze horren laburpena aldizkari bidez jasoko dute herritarrek hurrengo egunetan euren etxeetan, eta balantze osoa ikusi nahi duenak usurbileginez.wordpress.com blogean izango du ikusgai. Azken batean, webgune hori iritzi trukerako gune izatea nahi dugu, eta guztion artean datozen lau urteetarako legegintzaldia prestatzen hasteko bitartekoa. Izan ere, datorren legegintzaldia ate joka dugu, eta horri begira jarri gara jada. Balantzeak datozen lau urteetan landuko dugun herri programaren oinarri izan nahi du, eta herri programarako herritarrek dituzten ideien eta proposamenen bilgune. Beraz, gure burua astintzeko eta biharko Usurbil irudikatu eta eraikitzeko bitarteko ezinhobeak dira aldizkaria eta webgunea.

Balantze hori herriari aurkeztu genion herri programaren betetze mailaren neurgailua da. Izan ere, hauteskunde kanpainan agindutakoa bete nahi izan dugu, eta horrela izan dela deritzogu. Burutu ditugun egitasmoak zerrendatu eta azaldu ditugu. Baita egin ez ditugunak ere. Hala ere, seguru hutsune asko dituela, eta herritarrek betetzea nahiko genuke. Euren iritziaren, ekarpenen, desadostasunen eta proposamenen zain gaude.

**Usurbilgo Ezker abertzalea***

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.
Hurrengo alea: urtarrilak 21. Idatzia ekartzeko azken eguna: urtarrilak 17.

** Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.*

# Gernikako Akordioak herritar askoren babesa jaso du

**Gernikako Akordioaren sinatzaileek ituna gizarteratzeko ekimenekin segitzen dute. Usurbilen, urtarrilaren 2an egin zen itunaren beraren aurkezpen ekitaldia. Arlo zein sentsibilitate ezberdineko herritarren babes publikoa jaso zuen hitzarmenak.**

Gernikako Akordioa iazko irailaren 25ean aurkeztu zuten, Euskal Herriko hainbat alderdi politiko, sindikatu eta gizarte erakundek. Ezker Abertzalea, Aralar, EA, AB eta Alternatiba dira “Bake bidean aterabide demokratikoen akordioa” izeneko agiria sinatu duten indar politikoak eta, haiez gain, LAB, ESK, EILAS, ELB, EHNE eta Hiru sindikatuek edota AEK-k, Bilgune Feministak eta Herria 2000 Elizak ere sinatu dute.

**ESKAEREN ARTEAN**

"Jarduera armatua behin betiko uzteko borondatea azaltzeko eskatu zioten ETAri”

ETAri "jarduera armatua behin betiko uzteko borondatea" eskatu zioten, eta horren erakusle gisa, "nazioarteko komunitateak egiaztatzeko moduko su-eten iraunkorra eta aldebakarrekoa aldarrikatzeko".




AKORDIOA BABESTU DUTEN HERRITARRAK, URTARRILAREN 2AN EGIN ZEN AGERRALDIAN BATEGINIK.

Espainiako Estatuari, berriz, eskubide politiko eta zibil guztien aitortza eskatu zioten, eta hori gauzatzeko Alderdien Legea bertan behera uzteko exijitu. Halaber, gatazkarekin zerikusia duten presoen aurkako espetxe politika baztertzeko eta preso horientzako amnistia gauza dadin bidea hasteko.

Urtarrilaren 2an Usurbilgo frontoian egin zen ekitaldian, arlo zein sentsibilitate politiko ezberdineko herritarrak batu ziren. Olatz Altuna eta Joseba Berriozabalek akordioa irakurri zuten, eta trikitilariek, dantzariek eta bertsoek alaitu zuten ekitaldia.

### ETAren su-etena

Astelehen honetan, urtarrilak 10, su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra aldarrikatu du ETAk. Erabaki hori “behin betiko konponbiderako prozesuarekiko eta konfrontazio armatuaren amaierarekiko” duen konpromisoaren adierazle dela agertu du.

## Akordioa babestu duten herritarrak

Marta Agirre
Eneritz Agirre
Jon Aizpurua
Mikel Alkorta
Olatz Altuna
Aizkorri Aranburu
Xabier Arregi
Luken Arkarazo
Iñigo Azpiroz
Manolo Begiristain
Anttoni Bengoetxea
Joseba Berriozabal
Joxe Mari Eizagirre
Jakoba Errekondo
Imanol Etxabe
Aihert Goia
Ramon Iparragirre
Joxe Mari Iribar
Joxe Mari Izeta
Aitor Landaluze
Andoni Larrañaga
Eñaut Lasarte
Irati Lasarte
Garazi Lizaso
Antonio Orbegozo
Nekane Otaegi
Aitor Pagola
Jose Antonio Piñas
Begoña Rekondo
Oxkar Santamaria
Manex Torrealdai
Ramon Udabe
Anjel Uli
Ainara Uribe
Mikel Usabiaga
Josu Portu
J. Domingo Aizpurua
Arantxa Muguruza
Eustakio Arrojeria
J.Ramon Furundarena
Lontxo Zubiria
Marisa Alejandro
X. Mikel Errekondo
Agurtzane Solaberrieta

## ATXEGALDE

UNAI AIZPURUA

# Aurten bai!



Egunero bezala, “Epa!” esan eta betiko ebakia eskatu. Kalean hotza. Euririk ez, baina hodei beltzak zeruan. Azukrea bota, goilaraz lagunduta kafea gozatu eta badoa pixkanaka kafeina “txutea”. “Beroa zagok, de dio!”. Katilua, plateratxoan utzi, eta “Gara”ri begira geratu naiz. Hau ez da ordea, gorputzak eskatzen didan plazer bakarra. Eskua patrikara sartu eta gatibu naizen kaxatxo txikia heldu. Zigarroa ahoan sartu eta txiskeroa hurbiltzen dut, konbustio festa hastera doa. “Hi txo, erretzera kanpora”, eta jarri berri duten karteltxora zuzentzen dut arreta.

Ditxosozko legea abian da. Kale gorrian. Berriz ere zigarrora zuzendu txiskeroa eta ume batzuk parez pare jolasean parkean. “Hemen ere ez, motel!”. Parketik urruntzen ari naiz eta ikastola aurrez aurre, aurrerago joan eta polikiroldegia. Handik metro batzuetara anbulatorioa. Euria barra barra hasi du. Korrika kale kantoian sartu eta etxe tarte batean geldi. Azkenik babesean. Plazer momentua bilakatu da azken urte luze hauetan nire kafetxoarekin batera zigarrotxo bat erretzea. Kafetxoa? Honezkero izoztua. “Zertan habil motel?” Galdetzen diot behin eta berriro nire buruari. Zertan? Zertarako? Azken *zupada*. Zigarroa ahotik urrundu, bitan erdibitu eta paketearekin batera zakarrontziko bidea hartu dute. Betirako. Askea naiz. Askeak zarete. Gure kontura dirua irabazi, gure kontura aberastu. Osasunaren kalterako dena saldu, lagunartea kutsatu. Eta hau gutxi ez balitz, ezin gorputzak eskatzen digun lekuan kontsumitu. Heldu iezaiozue aukerari, utzi erretzeari! Orain inoiz baino ozenago, aurten bai!



## AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

# Ea 2011n lortzen dugun



*Urte berri, bizi berri* esaten omen du esaerak, baina gripeak jota hasi dugu askok, beraz ez dakit esaldi horrek berritasun zentzu handirik duen. Urte berriko gripe zaharra gainditu orduko hortxe izango dugu gain-gainean urtarrilaren 27rako deituta dagoen greba orokorra, euskal sindikatu abertzaleen gehiengoak deitu duena. 67urterekin ez dakit nik ze fundamentu izango dugun lanerako gure lantokietan, baina puntu hori uki ezina omen da gobernuarentzat. Horren kontra Euskal Herrian gehiengoa kalera aterako garela ziur nago ni. Ondoren maiatzeko udal eta foru hauteskundeak etorriko zaizkigu; agian, hor izango dugu aukera Zubietan eraiki nahi duten tximiniari hortzak erakusteko. Hori lortzeko aukerak bai baitaude. 2011 berri honi begira, bi erronka zail aipatu ditut. Baina badaukagu beste bat errazagoa ez den arren itxaropen berriz ikusten hasi garena. Esperantza baino ametsa ote da pentsatzea udazkenean Aginagako gure presoak -Patxi, “Xomorro” eta Jokin- euskal kartzeletara hurbilduta ikusi beharko genituzkeela? ETAk deklaratu duen su eten iraunkorraren ondoren, pausoak ematen hasi beharko genuke horretara iristeko. Preso guztien askatasun osoaren bidean.

## URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

# Urte berria, orri zuri bat



Agur bero bat guztiei Usurbilgo txoko honetatik! Urte berria hasi genuela egun batzuk igaro badira ere, urte berri on! Urte berriak bi alderdi ditu: hasteko, pasa den urtean zehar gertatutakoaren halako laburpen bat, bizitakoak, egindako bidaiak, norberak eta maite ditugun horiek izan dituzten gorabeherak, momentu ahaztezinak, momentu ez hain onak…

Eta bigarren partean urte berriari eskatzen zaiona dator, gurarien atala beraz: asmoak, esperantzak, ilusioak, betetzea espero ditugun ametsak... Urte berria hastea ez da soilik egutegia aldatzea, bizilagunei ere urte berri ona opatzea baizik.

Orri zurian bide polita marraztean dago gakoa; norberak hautatutakoa. 2011 urte zoriontsua izan dezazuela opa dizuet! Beti izan dezazuela betetzeko amets bat, burutzeko egitasmo bat, partekatzeko helburu bat. Beti izan dezazula zer ikasia, nora joana. Beti izan dezazula nor maitatua. Egunero jarri behar dizkiogu erronkak gure buruari eta gogoratu: orri zuri bat da urte berria. Hasi bidea marrazten. Zorte on!

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 7 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Santueneako kronika hurrengo batean bilduko dugu.*

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

# Ikusteko ilusioa



Beste behin ere Eguberriek ez digute hutsik egin eta iritsi dira! Berdin Olentzero eta Erregeak ere, aurten ere hutsik egin gabe herriko eta auzoetako haurrak liluraz betetzera etorri dira.

Errege bezperan, ilunabarra iritsi orduko, hantxe ikusi genituen San Estebandik behera antortxen su garrak eta gure auzotik noiz pasako zain gelditu ginen. Baita etorri ere, eta ez nolanahiko kuadrila gainera!!! Berrogeita hamazazpi gazte elkartu ziren frontoirako norabidean ziren Erregeei bidea argitzeko eta beste hamabi haiei laguntzeko.

Haizeak gogor kontra egin bazien ere, lortu zuten helmugara iristea eta bertan zeuden haurrak aho zabalik uztea. Txalogarria da benetan gazte hauen parte hartzeko nahia; goizean-goizetik frontoiko estalpea moldatzen ibili ziren.

Ondoren, postaria zetorrela eta hari laguntzen aritu ziren haur guztiek aukera izan zezaten beren gutuna behar zen lekura helarazteko. Frontoian ilara luzea sortu zen, pilotalekua alderik alde zeharkatzen zuena, guztiak irrikitan nork bere gutuna emateko prest. Bazkalostean berriz, San



Estebanen jarri zuten hitzordua Andatzatik behera zetozen Erregeei harrera egin, eta frontoirako bidean finkatua zegoen ibilbidea osatzen laguntzeko.

Bi ordu paseak eman zituzten ibilbide osoa egiten, bi ordu luze haurren gozamenerako.

Zorionak beraz, eta eskerrik asko, ilusio eta magia honetan parte hartu duzuen guztioi!!! Ondo izan eta hurrengora arte.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

# 2011, urte borobila



Urte berri on guztioi!!! Hasi gara eta 2011 urte berri hau estreinatzen eta nola gero!!! Askok eta askok parrandan eman genion zaharrari agurra eta berriari ongietorria. Egia esan Usurbilen giro polita izaten dugu egun horretan. Aurtengoan ere DJ eta guzti gainera; Askatasuna plazan giro ederra sortu zen. Aipatu giro ederra aprobetxatuz kalean gustora genbiltzan. Urte zaharra joan zaigu eta urte berriari hainbat desio eta nahi eskatuz hasi gara eta diotenez energien aldaketa dator eta horren esperoan gainera...

Estreinatzeaz ari garela Kale Nagusia aldean badugu zer edo zer estreinatzeko ba. "Lurda" izeneko dendatxoaz ari natzaizue, sekulako eskaparate ederraz apaindu digu Begoñak inguru hori. Urte berri honekin batera dendatxo berriak ere baditugu orduan!!! Egun hauetako batean bisitatxo bat egiteko aukera izango dudalakoan nago. Ia ba Usurbilgo komertzioa indartzea lortzen den, izan ere komertzioa dagoen inguruan bizia eta aukera geroz eta handiagoa izaten da eta!!!

Ondo ondo hastea opa dizuet denoi sartu berri garen urte honetarako, txoko honetatik eta zorte on Begoña!!! Ondo izan eta muxutxuak...

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

# Aurrera bolie!



Gabon ondoreneko kronika idatzi behar eta banuen asmoa Olentzerok eta erregeek Zubietan duten tratamendu desberdinaz aritzeko baina ez. 2010. urtea bukatu berri eta egin nezakeen urtearen balooraziorik, nabarmendu nezakeen eskola txikiko gurasoek eskolaren biziraupena eta jangela lortu izana, edo Lasarterainoko bide gorri berriaren onurak, baina ez, gaur ez...

Urteko lehen kronika idatzi behar eta, tira, kexatu nintekeen Hamaikabateko desesperatuek datuen babeserako legeari muzin eginez gabon zaharretan zubietar askori bidali ziguten mezu elektoral hipokritaz, baina ez, inkestek diotenez datozen hauteskundeetan poltronarik gabe geratuko dira eta ez du merezi... Bestela, zubietar askok presoen eskubideen aldeko Bilboko manifestazioan bizi izan genuenarekin ere bete nezakeen nire txoko hau baina ez, ez, ez.

Ez, gaur urtarrilaren 10a da eta Zubietan, Euskal Herrian eta munduan, hau da notizia: ETAk su-eten egiaztagarri, iraunkor eta orokorra aldarrikatu du. Eta horrekin ateak ireki dizkio aro politiko emankorragoari, Zubieta eta Euskal Herri aske, justu eta osasuntsuagoaren aldeko borroka ilusioz eta indarrez beteko duen aroari. Aurrera bolie!

## Xabier Mikel Errekondo, alkatea

# “Donostiaren irizpideak aurrera eramateko tresna bihurtu da Lurraldearen Zatikako Plana”

**Usurbilek datozen bi hamarketan jasan ditzakeen aldaketak jasotzen ditu, Lurraldearen Zatikako Planak edo Plan Partzialak. Nolabait esateko, hurrengo hogei urteetan udalerriak izan dezakeen itxura marraztua du Eusko Jaurlaritzak. Marraztua bai, baina oraindik ez dago guztia erabakia. Lurraldearen Zatikako Plana hasieraz onartua eta orain alegazio epean dago, urtarrilaren 20ra arte. Udalak erreklamazioak aurkezteko asmoa du. Abenduaren amaieran Sutegin egin zen agerraldian, alkateak hala adierazi zuen: “Donostiaren irizpideak aurrera eramateko tresnan bihurtu da, inguruko herrien, Usurbilen kalterako bereziki”.**



SUTEGIN EGINDAKO AGERRALDIAN IZAN ZIREN ALKATEA, IBON GOIKOETXEA INGURUMEN UDAL TEKNIKARIA ETA OIER OTXOANTESANA UDAL ARKITEKTOA.

Industria, etxebizitza edota azpiegituretan Usurbilen etorkizuna baldintzatuko duen Lurraldearen Zatikako Plana aurkeztu zuten udal ordezkariek joan den abenduaren 22an Sutegiko auditorioan. Xabier Mikel Errekondo alkateak, Ibon Goikoetxea Ingurumen alorreko teknikariak eta Oier Otxoantesana udal arkitektoak, hasieraz onartua dagoen dokumentuaren nondik norakoen berri eman zuten. Asteazken honetarako, urtarrilaren 12rako gai honi lotutako hitzordu berria deitua zuen Udalak, 18:30ean Artzabalen.

### Irizpide falta

Lurraldearen Zatikako Plana joan den uztailaren 16an hasieraz onartu zuen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak. Alegazioak aurkezteko epea zabalik dago orain, urtarrilaren 20ra arte. Usurbilgo Udalak erreklamazio sorta aurkezteko asmoa du.

> **HASIERAZ ONARTUTA**
>
> “Alegazioak aurkezteko epea urtarrilaren 20ra arte dago zabalik. Udalak erreklamazioak aurkezteko asmoa du”

Baina herritarren iritziak eta ekarpenak ere kontuan hartu nahi ditu. Zatikako Planaren berri ematerakoan, alkateak argitzen zuen moduan, “helburua, udal barruko izapidetza hutsa ez izatea da”.

Herritarrek hirigintza eta ingurumen alorretan zeresanik badutela zioen. Are gehiago, dokumentuaren helburua zein den ikusita. “Azpiegitura estrategiko jakin batzuk jaso eta forma legala emateko baliatu nahi dute tresna hau”, adierazi zuen Errekondok.

### “Usurbilen kalterako”

Irizpideak Donostiatik finkatu direla ere gaineratu zuen. “Donostiaren irizpideak aurrera eramateko tresnan bihurtu da, inguruko herrien, Usurbilen kalterako bereziki”, alkatearen esanetan.

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

# Lurraldearen Zatikako Plana, planoan

Plan Partzialaren izaera estrategikodun gune nagusietakoa Zubieta da. Plan Partzial honek bertan kokagunea erreserbatua du errauste plantarentzat, baita handik gertu eraiki nahi duten kartzelarentzat ere. Errauste plantaren ondoan, ur depositu berri bat eraikitzeko asmoa legoke Usurbilgo Udalak berri eman zuenez, besteak beste planta bera urez hornitzeko. Eskualde osorako argi hornidura emango lukeen estazioa ere bertan kokatu nahi dute. Eta bide berri bat eraiki, Santuenetik hasita.

Izaera estrategikoko beste gunea Aritzeta ingurua litzateke. Besteak beste, kuartel militarra bertan kokatzen du Plan Partzialak.

**ERREPIDEENGAN ERAGINA**

"Txikierditik Aginagara saihesbide bat planteatu da. N-634 errepidea ez litzateke kaxko ondotik pasako"




GAUZATU ASMO DITUZTEN PROIEKTUAK IKUS DAITEZKE LURRALDEAREN ZATIKAKO PLANAREN MAPA HONETAN.

### Aldaketa nabarmenak N-634 errepidean

Planak aurreikusten duen egitasmo nabarmenetako bat errepide sareari dagokiona da. N-634 errepidean, hobekuntza lanak burutzeko asmoa dago, hiru fasetan.

Epe laburrera, bere gaitasuna hobetu nahi da, epe ertainera, N-1 errepidearekin lotura berriak eraikitzea planteatzen da, zehazkiago, Bugatitik Txikierdirainoko saihesbidea.

Halere epe luzera jarrita legoke planteatzen den egitasmo nabarmenena; Aginaga eta Txikierdi lotuko lituzkeen saihesbide berria zubi eta tunelekin.

# Bi tren geltoki gehiago aurreikusten ditu Planak

Usurbil Urola bailararekin edota Donostialdearekin lotzen duen trenbide zerbitzuan ere aldaketak planteatzen ditu Plan Partzialak. Batetik trenbidea zuzendu nahi dute, tunel berri baten bidez. Bestalde, trenbide sarea bikoizteko asmoa dago. Eta urteetan funtzionamenduan egon ostean, bere garaian itxi ziren bi tren geltoki ere berreskuratzea aurreikusten du Plan Partzialak; Txokoalde eta Txikierdikoak hain zuzen.

### Etxebizitzak eta industrialdeak

Plan Partzialak Agerreazpi, Ugartondo eta Olarrondo inguruetan eraikitzekoak diren etxebizitzak kontuan hartzen ditu. Baita Zubietan eraiki asmo dituztenak ere. Industrialdeei dagokienez, Elor eremukoa garatzea ez da beharrezkotzat jotzen, bai Eskuaitzetakoa.

### Informazio gehiago, Udaletxean

Informazioa jaso nahi duenak, udaletxera jo beharko du. Bertan, plan osoa jasotzen duen CD-a eskura daiteke.

Interneten, helbide honetan dago dokumentazio osoa eskura: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-565/eu/contenidos/informacion/ptp_donostialdea_aprob_inicial/eu_ptp/indice.html

# Eragozpen handirik gabe jarri da indarrean tabakoaren inguruko lege berria

**Urtarrilaren 2az geroztik kerik gabeko guneak dira herriko ostalaritza alorreko establezimenduak. Jatetxe eta tabernetan pilatu ohi den kea kalera bota du, gobernu espainiarrak onartua duen lege berriak. Leku itxietan erretzea debekatu izanak ordea, ez du aparteko arazorik sortu lehen egunetan. Normaltasuna da nagusi bezero eta ostalarien artean.**

Hautsontzirik ez, kerik ez, tabako usainik ere ez, ezta piztutako zigarrorik ere, taberna barruan. Tabakoaren Aurkako Legea Usurbilen ere indarrean dago hilabete hasieratik. Momentuz ordea, araudi berriak ekarritako debekuek iskanbila handirik ez dute sortu.




HAMABOSTALDI HONETAN ARRETA GEHIEN BEREGANATU DUEN KARTELA IZAN DA HAUXE, EZBAIRIK GABE.

### Tabernari askoren kezka

“Gu ezin gara erretzen ari denaren aurka jarri, azken finean gure berezoa da”

Legearekiko harrerak beste munduko buruhausterik eragingo ez duen arren, pixkanaka hainbat bezeroren ohiturak aldatzen joango direla uste du Txiribogako Arantxa Unanuek. “Jendea kafea hartzera etortzen zen bere zigarroarekin, koadrila baldin bada, bizpahiru pote hartzen zituzten zigarroa errez. Aurrerantzean ez ordea. Ziur aski, pote bat hartu eta lehenbailehen kanpora alde egin nahiko dute. Alde horretatik jende gutxiago nabarituko dugu, beherakada batez ere diru-kutxan”, dio Txiribogako langileak.

### Bezero guztiak zaindu behar

Jakin berri denez, Tabakoaren Aurkako Legea, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan otsailera arte ez du onartuko Eusko Legebiltzarrak. Debekuak indarrean egon arren, isunak gutxienez datorren hilera arte ezingo dira aplikatu. Halere, hasiera batean, legea betetzeko ardura, ostalaritza establezimenduetako langileena izango da.

### Argibide gehiagoren zain

“Norbait erretzen ikusten badugu, beragana joango zaio esanez hemen ezin dela erre. Zigarroa itzali edo kanpora erretzera ateratzea eskatuko zaio. Gu ezin gara erretzen ari denaren aurka jarri, azken finean gure bezeroa baita. Baina ondoan dagoen eta erretzen ez duen bezeroak arauhausteagatik gu sala gaitzakete”, gogorarazi du Unanuek. Edozein kasutan, lege berriaren inguruko argibide gehiagoren zain daudela dio Txiribogako langileak.

Zalantza agertzen du ia urtean zehar herrian burutzen diren ospakizun egun nagusietan, Sagardo Egunean edo Santixabeletan adibidez, legea beteko ote den edo ez. Baina berak dioen moduan, eguna ailegatutakoan ikusiko da.

### Arantxa Unanue, Txiriboga: “Jendeak oso ondo erantzun du”

Txiribogan adibidez, urte berri honetako lehen egunak normaltasun osoz joan direla diote. “Dena hain ondo joatea ez genuen espero. Jendeak oso ondo erantzun du, inolako arazorik gabe”, adierazi du Arantxa Unanuek. Ezustekoa hartu dute, aurreko hilabeteetan barraz bestalde bezeroen artean entzuten ziren iritziak, aintzakotzat hartzen badira behintzat. “Oso konplikatua izango zela zirudien, jendeak ez zuela errespetatuko. Ez da hala izan”, gaineratu du Unanuek. Kexarik ez beraz, ezta zigarroa pizten zebilen despistaturik ere. Lege berria indarrean sartu dela ahaztu zaionari, ezin dela erre gogorarazteko pegatina eta kartelak jarrita daude establezimendu guztietan.

# "Txarrena hori da, gu jarri gaituztela ikuskatzaile moduan"

**Tabernetan, eta noski jatetxeetan ere eragingo du Tabakoaren Lege berriak. Edaritegietan ez bezala, lagun asko biltzen dituzten ezkontza edo antzeko ospakizunekiko kezka agertu du Atxega jatetxeko Mikel Garmendiak, kasuotan Tabakoaren Lege berriak euren jardunean nahasmena eragin dezakeela uste baitu. Lege berriak, ostalariak bezeroen ikuskari bihurtzea ez deritzo egokia denik.**



MIKEL GARMENDIA, ATXEGA JATETXEAN.

**NOAUA! Lehen egunak zer moduz joan dira?**

**Mikel Garmendia.** Normaltasun osoz bizitzen ari gara. Egunok oso normal joan dira. Bezero bat izan da zigarroa ezpainetan zuela sartu dena eta segituan atera da. Duela bi urte hasi zen hau. Legeak bere garaian, jangela handiak genituenok bi zati egitera behartzen zigun. Momentu hartan hasi ziren gora-beherak. Ordutik, jangelan haurrak zeuden unetik jendea kanpora ateratzen zen erretzera. Jada ordutik, jendea errespetatzen hasita zegoen.

**N. Despistaturen bat, besterik ez orduan?**

**M. G.** Bai. Ez guk esan diogulako, bera konturatu da. Beste ezer ez da izan. Egia da bezeroak bazirela erretzeagatik kafetxo bat hartzera etortzen zirenak. Orain, agian lehen egunetan ez dira etorriko, edo akaso haserre egongo dira. Baina denborarekin kanpoan erretzen bukatuko dute. Kanpoan, behar bezalako leku bat jarriko baitugu erretzeko. Zigarroa erreta, gero barrura sartu eta kafea hartuko dute. Egokitu egin behar gara.

**N. Ez duzu aurreikusten arazo handirik sortuko denik beraz?**

**M. G.** Ikusten dudana da, tabako gutxiago salduko dugula. Makina bat dut, ez dut kenduko, azkenean bezeroetatik bizi naiz, eta eskerrak ditugun bezeroei, usurbildarrei eskerrak. Terrazan erretzeko leku berezi bat jarriko dugu. Traumarik ez da sortuko, baina gauza guztiek bezala denbora beharko da.

## IRITZI EZBERDINAK

"Erretzen ez duenari, lege hau oso ondo datorkio. Erretzen duenak, berriz, ez du ondo ikusten"

**N. Tabakoaren legea dela eta, lehendik ere moldaketak egin behar izan dituzue?**

**M. G.** Gastu bat egin genuen, baina orain horrekin inork ez du ezer jakin nahi. Horrentzat ez dago erantzunik, ez Gobernutik ezta ostalaritza elkartetik ere.

**N. Azken hilabeteotan, lege berria dela eta nahikoa informazio jaso duzue?**

**M. G.** Duela gutxi lehen informazioa jaso dugu. Ikuskaritza aldetik ere oraindik ez dago prestatuta Gobernua. Esaten ziguten, ekainera arte ez ote diren jarriko martxan ikuskapenak. Baina gu jarri gaituzte ikuskatze lanetan.

**N. Egokia iruditzen al zaizu erantzunkizun hori zuen gain uztea?**

**M. G.** Ez da justua. Txarrena hori da, gu jarri gaituztela ikuskatzaile moduan. Gainera ikuskapena egingo digute eta hura ere guk ordaindu beharko dugu. Hori da datorren gauzarik tristeena. Hau ere irentsi egin beharko dugu, ez dago besterik.

## Ezkontzetan eta horrelakoetan, komeriak

**NOAUA! Ostalari moduan, lege berriari alde onak edo trabak gehiago ikusten dizkiozu?**

**Mikel Garmendia.** Neure ikuspuntutik txarrena ez da tabernan erretzen duenarentzat. Lege berriak alde txar bat du, ezkontzak ematen ditugula eta 140 gonbidatutik 40 batera altxa eta kanpora ateratzen badira erretzera, itxaron egin behar duzu haiek sartu arte. Denak momenturo aterako balira, pentsa. Iskanbila handiena halako ospakizunetan egongo da, ez egunero kafea hartzera etortzen direnen artean.

# 350 lagun eta giro ederra San Silbestre lasterketan

**Herriko ostalari eta dendariak biltzen dituen Hurbilago Elkarteak antolatutako I. San Silbestre herri lasterketa arrakastatsua izan da. 350 lagunek parte hartu zuten joan den abenduaren 31n ospatu zen lasterketan. Giro polita sortu zen.**

Herriko establezimenduak suspertu eta herri giroa indartzeko burutzen ari diren egitasmoaren baitan, geroz eta hedatuagoak dauden San Silbestre herri lasterketen esperientzia ekarri zuten Hurbilago elkartekoek Usurbila, joan den urtezahar egunean. Ekimenak 350 laguneko parte hartzea erakarri zuela aintzakotzat hartuta, antolatzaileek asmatu dutela esan liteke. Lasterketak ez zuen lehia kutsurik izan; Hurbilago elkartekoek nahi zuten bezala, festa giroa nagusitu zen. Gurasoak seme-alabekin, lagun koadrilak, gaztetxoak, helduak… Giro polita sortu zen ekimenaren inguruan, are gehiago lasterkari eta ikusleek eguraldia lagun izan zutela jakinik.

## Agortu egin ziren kamisetak

Lasterkari gehienek aldez aurretik izena emana zuten; noaua.com web orrialdean ehun batek eta Hurbilago elkarteko kide diren establezimenduetan beste 210 lagun inguruk. Gainerakoak proba hasi aurretik apuntatu ziren. Parte hartze datuen erakusgarri, antolakuntzak prestatuak zituen 370 kamisetak, agortu egin baitziren.

## Laguntzaileekin esker onez

Hurbilagoko arroparekin, partaideek lasterketako lau kilometroko ibilbidea herri merkataritza bizirik mantentzearen aldeko aldarrian bihurtu zuten. Bide gurutzeak zaintzen aritutako **udaltzain, kirol taldeetako ordezkari** eta **DYA-k** emandako laguntza azpimarratu nahi dute antolakuntzatik.



ASKOK ETA ASKOK, UMOREZ HARTU ZUTEN LASTERKETA.

## Sariak haur eta helduentzat

Amaieran sariak banatu zituzten baina ez sailkapenaren arabera, lehiakortasunik gabeko lasterketa izanik, ez zegoelako dortsalik. Hurbilago elkarteko dendari eta ostalariek jarritako 30 eta 25 euroko erosketa baleak zozketatu ziren helduentzat. Haurrek ere sariak jaso zituzten.



# Ikastolarako eraikin berria, gauzatzetik gertuago

**Haur Hezkuntza osoa bere baitan hartuko lukeen Udarregi ikastolako egitasmo berria errealitate bilakatzeko bidean da. Agerialde eremuaren azalera handitzeko aldaketa puntuala behin behingoz onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. Agerialden kokatuko den ikastolako eraikin berrirako pauso berri bat eman da beraz.**

Udalbatzak abendu amaierako osoko ohiko bilkuran gehiengo osoz hartu zuen erabakiaren helburua Agerialde eremuko azalera handitzea da, hartara ikastola ere handitu ahal izateko. Horretarako, Atxegalde eremuaren azalera murriztuko da, nahiz Udalak berri ematen duenez, horrek ez duen azken eremu honentzat aldaketarik suposatuko.

Gai honi lotutako espedientea hilabetez jendaurrean egon den artean, ez da alegaziorik aurkeztu. Orain, udal ordezkarien gehiengoaren babesa jasota, EAE-ko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorriko da testua, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuen Aldaketari dagokion txostena egin dezan.



ORAINGO AZPIEGITURAK EZ DIRA NAHIKOAK.

### Egungo eraikina txiki geratu da

Helburua, Haur Hezkuntza osoa, hau da, 0-3 eta 3-6 zikloak bere barne hartuko dituen eraikin berria gauzatzea da. Modu horretan, populazio hazkundearen eraginez, egun ikastolak duen leku falta konpondu nahi da.

Eguberrien atarian gai hau aztertzeko Hezkuntza Mahaia bildu zen, Usurbilgo Udaleko Komunikazio Sailetik berri eman zutenez. Udal arkitektoak eginiko aurreproiektua aurkeztu zitzaien bilguneko alorreko eragileei; zuzendari, irakasle eta guraso ordezkaritzari eta baita udal hautetsi politikoei ere.

# Aurrera doa Agerreazpiko Plan Partziala

**Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Agerreazpi sektoreko Plan Partzialaren 2. Aldaketa behin betiko onartu du udalbatzak gehiengo osoz, azken osoko ohiko bilkuran. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin batera, erabakia Foru Aldundira igortzekoak ziren, bertako hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.**

Agerreazpi eremuan, 108 etxebizitza eraikitzeko asmoa dago, horietatik 36 babes ofizialekoak. 146 metro karratuko azalera erabilera komertzialerako bideratzea aurreikusten da. Baita bi partzela handi sortzea ere, bat ia lau mila metro karratukoa, bestea bost mila metro karratu pasatxokoa, ekipamendu komunitarioetarako. Oinezkoentzako bidea, edota bidegorri bat irekitzeko asmoa ere bada.

### Sekaña eremuko aldaketa

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-34 Sekaña Eremuko Ezaugarrien Fitxaren Aldaketa Puntuala, behin behingoz onartu zuen udalbatzak, abendu amaierako osoko bilkuran. Espedientea EAE-ko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igorriko da, Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuen Aldaketari dagokion txostena egin dezan.

## Arau Subsidiarioen testu bategin berria

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategin berria hasieraz onartu zuen udalbatzak, gehiengo osoz abenduaren 28an burutu zen ohiko osoko bilkuran. Onarpen honek bertan behera uzten du 2007ko maiatzaren 2an hasieraz onartutako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Testu Bateginaren izapidetzea. Hasieraz onartutako dokumentua, hilabetez jendaurrean egongo da ikusgai, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Udalak ohartarazten duenez ordea, aldaketak eman diren esparruetan baino ezingo dira aurkeztu erreklamazioak.

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# Erregeen etorrerarekin amaitu ziren Eguberriak

**Errege Kabalgatarekin amaitu dira azken asteotarako herrian antolatuak zeuden eguberrietako ekitaldiak. Ekimen gehienak, oporraldi hauetako protagonistak izan ohi diren haur eta gaztetxoei zuzenduak zeuden. Hala nola, Gabonetako Parkea, edota Sutegin eskaini diren film eta txotxongilo emanaldiak.**

Urtarrilaren 10az, astelehenaz geroztik egunerokotasunera itzuli gara guztiz, jan edan, opor eta hainbat jai egunen ostean. Azken asteotako eguberri giroa, batez ere herrian antolatu diren ekimenetan islatu da. Gabon kantek girotu zuten abenduaren 24a. Aginagan, Zubietan eta Kaxkoan berriz, Parrokiak eta Usurbilen Nahi Ditugu elkartearen eskutik. San Silbestre herri lasterketak eta presoen eskubideen aldeko urteko azken elkarretaratzeak borobildu zuten 2010a. Tartean, izan dira bereziki haur eta gaztetxoei zuzendutako hainbat ekimen ere; abenduaren 27tik 29ra euskal mitologia ardatz zuen Gabonetako Parkea Oiardo Kiroldegian. 2-12 urte artekoek ez zuten falta izan primeran pasatzeko aitzakiarik. Udalaren eskutik, Sutegiko auditorioan ere film eta txotxongilo emanaldiak programatu dira, tartean baita Txan magoaren ikuskizuna ere.

## Gaztelekuan ekitaldi asko

Bestalde, joan den udaberrian martxan jarritako Gaztelekua ere zabalik izan da gabonetako oporraldian. Hainbat ekimen bideratu dituzte; hala nola, Donostiako Txuri Urdin izotz jauregira irteera, Gaztelekucup txapelketa Zarautz eta Zumaiako gazteekin batera, edota Elegante Eguna.

## Aginagan, ludoteka

Eta azkenik, Aginagan ere ludoteka zerbitzua eskaini da eguberrietan. Antxomolantxa elkartearen eskutik gainera, antzerki emanaldiaz gozatu, edota Miramongo Zientziaren Kutxagunera joateko aukera eskaini da.



Gabonetako Jolas parkean jende asko bildu zen.

Ziortzakoek antolatutako Errege Kabalgatak amaiera eman dio eguberrietako ekitaldi eskaintzari. Goizean gutun bilketa burutu ostean, Urdaiagatik abiatu eta urtarrilaren 5ean iluntzean heldu ziren hiru erregeak Kaxkora. Gozoki zaparrada etengabekoa zen, Meltxor, Gaspar eta Baltasarrengana gerturatzen ziren haur eta helduen inguruan.





Errege kabalgatan beste urte batzuetan baino jende gehiago bildu zen. Zubietatik ere pasa ziren erregeak (eskubiko irudian).












# Joko ona eta elkartasun giroa, Mirotzen Omenezko Infantil Txapelketan

**Infantil mailako eskubaloi txapelketa jokatu zen abenduaren 30ean, Oiardo kiroldegian. Mirotzen omenezko ekitaldi honetan, Euskal Herriko hainbat taldek hartu zuten parte.**

Usurbil Kirol Elkartea taldeko jokalaria zen Mirotz Ullate, eta oso gazte zendu zen. Bere heriotzak samin handia eragin zuen taldean eta, orohar, herrian. Geroztik, urtero eskubaloi txapelketa egiten da Usurbilen.

### Talde ugari

Abenduaren 30ean jokatu zen txapelketan, Usurbil KE, Zarautz, Pulpo, Tolosa, Basauri, Anaitasuna, Ereintza eta Aloña Mendi taldeetako neskak eta mutilak aritu ziren lehian. Usurbildarrak ondo ibili ziren, mutil zein nesken arteko partidetan. Hauek izan ziren azken sailkapenak:

### Mutiletan, Zarautz garaile

1.- Zarautz
2.- Tolosa
**3.- Usurbil KE**
4.- Basauri
5.- Pulpo
6.- Anaitasuna

### Nesketan, Aloña Mendikoak

1.- Aloña-Mendi
2.- Basauri
3.- Pulpo
**4.- Usurbil KE**
5.- Zarautz
6.- Ereintza



GOIZEAN GOIZETIK HASI ZIREN NORGEHIAGOKAK KIROLDEGIAN. HARMAILETAN GIRO EDERRA EGON ZEN TXAPELKETA OSOAN.

## Zozketa ezberdinetan saritutako herritarrak

Abenduan egin zen azken zozketan, Arbil Jauregi izan zen saritua. Antxetan birentzat bazkaria irabazi zuen Arbilek. Baina ez da Gabonetan Usurbil KE taldeak egin duen zozketa bakarra izan. Arkume bat ere zozketatu zuten. Kasu honetan, zenbaki irabazlea 1047 izan zen eta Roman Agirre zenbaki horren jabea. Semea pasa zen sari bila. Eskubaloi taldeko kideek eskerrak eman nahi dizkiete partehartzaile eta saltoki denei.



ANTXETAN BIRENTZAT BAZKARIA IRABAZI DU ARBIL JAUREGIK.



ROMAN AGIRREK IRABAZI ZUEN SARIA SEMEAK JASO ZUEN.






## Agenda !!

### Urtarrilak 16 igandea
**Bertso-saioa** Andoni Egaña, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita eta Unai Iturriaga.18:00etan Sutegin.
Udala, Bota Punttuba Bertso Eskola.

### Urtarrilak 28 ostirala
**Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** Mikel Laboa plazan, 20:00etan.
Usurbilen Nahi Ditugu elkartea.

### Urtarrilak 29 larunbata
**Kantu-jira** 19:00etan frontoian.
Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

### Goardiako farmaziak

**Urtarrilak 14, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Urtarrilak 15, larunbata**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urtarrilak 16, igandea**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urtarrilak 17, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Urtarrilak 18, asteartea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Urtarrilak 19, asteazkena**
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

**Urtarrilak 20, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz. Lasarte

**Urtarrilak 21 ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Urtarrilak 22, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz. Lasarte

**Urtarrilak 23, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz. Lasarte

** Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
***Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani***
***Telefono zenbakia: 943 336 077.***

# Goardiako farmazien egutegia, noaua.com webgunean eskuragai

**Goardiako farmazien egutegia orrialde honetan bertan argitaratu ohi dugu. Asterokoa izan ohi da orri honetan biltzen duguna. Baina noaua.com webgunean egutegi osoa dago eskuragai. Goiburu azpian dagoen "Zerbitzuak" atalean klik egin, aukeren artean "Osasun zerbitzuak" hautatu eta "Goardiako farmaziak" izenburua azalduko zaizue. Hor klik egin eta "Goardiako farmazien egutegia" PDF euskarrian agertuko zaizue. Gordetzeko nahiz inprimatzeko.**



2011N, LARUNBATETAN 9:00ETATIK 13:30ERA, HERRIKO BI FARMAZIAK IREKITA EGONGO DIRA.

### Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak zabalik

Hala ere, orain arte bezala, aurrerantzean ere, NOAUA! aldizkariko agenda atalean, asteroko zerrenda argitaratzen jarraituko dugu.

Nobedade batzuk badira 2011n. Larunbatetan, esate baterako, txandaka irekitzen ziren Usurbilgo bi farmaziak. 2011n, biak irekiko dira larunbatero, goizeko 9:00etatik 13:30era.

### Gaueko goardiako farmazia

Urte osoan gaueko goardiako farmazia guztiak Hernanin egingo dira. Honako farmazian: Aizpurua. Latxunbe Berri, 11 kalea, Hernani (Tf: 943 336 077).

# Odola emateko hitzorduak 2011n

*Herritar guztiak animatu nahi ditugu ekintza honetan parte hartzera. Eta gainera norentzat den pentsatu gabe, behar duen edonorentzat izan liteke gure eskaintza. Horrek ematen dio edertasuna gure borondateari, ez dugulako laguntzea beste kriteriorik ezartzen gure ekintzan*". Halaxe ohartarazi dute Usurbilgo Odol Emaileek. Herritarrak odola ematera deitzen dituzte. Urteko lehen saioa astelehen honetan izan da.

Horrela osatuko da 2011ko egutegia:
**Martxoak 7 astelehena,** 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan.
**Maiatzak 2 astelehena,** 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan.
**Uztailak 11 astelehena,** 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan.
**Irailak 5 astelehena,** 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan.
**Azaroak 7 astelehena,** 18:00etatik 20:30etara anbulatorioan.







## ETXEBIZITZA

- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat.Oso eguzkitsua eta bizitzen jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdian edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Iñaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. 648 005 159.
- Apartamendu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
-Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gauez).
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

-Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da, 85 euro. 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeko bi marra dauzkat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
-33m karratuko lokal bat alokatzen dut Atxegalden 280 eurotan. Sarrera egokia. 943373414
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauzka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

## LANPOSTUAK

### Lan-eskaerak

- Usurbilgo Optikan esperientzia duen pertsona bat behar dugu jornada erdian aritzeko. 675708654.
- LHko bi umeei bazkaria emateko norbaiten bila gabiltza. Egokiena kaxkoan bizi den norbait. Telf. 689 769282
-Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabiltza. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabiltza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

### Lan-eskaintzak

- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordutegi malgua (egunez zein gauez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
-Emakume esperientziduna eta erreferentziekin eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
-Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 626344882.
- Neska bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
-Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko, 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsaldez, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Artzabalgo erreka ondoko banku batean patinete bat aurkitu genuen Errege egunean. 669353942.
-Bizikletako guante luzeak galdu ditut, kaxkoa eta tren geltokia artean. Topatu badituzu, deitu hona 634425787 (Borja) edo Bordatxora eraman.
-Mutil baten polar marroi bat galdu dut. 687406209.
-5 plazako Roller karabana bat daukagu salgai abantzea eta gainerako akzesorioekin. 3500 euro. Interesatuak deitu 676453176 zenbakira.
- Hemengo intxaurrak salgai, prezio onean. Telf: 943 67 11 60. Edurne.
- Administrazioko perfil guztiak eta EGA prestatzeko klase partikularrak ematen ditut. 656 723 650 (Jorge).
- Gurpildun aulki bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa, silla, burbuja eta zakutxoarekin. 616586851
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki).
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Libe!** 6 urte beteko dituzu txapelduna! Muxu handi bat etxekoen partez. Maite zaitugu bihotza.



**Zorionak amatxo!** Puff ze piloa... Muxu pottolo bat Danel, Unax eta etxekoen partez!



**Zorionak Jesus!** 9 urte egin dituzu. Muxu potolo bat familiaren partez! Ondo pasa!



**Zorionak!** Urtarrilaren 12an zure urtebetetzea da, oso oso ondo ospatu. Muxu handi bat txapeldun!



**Zorionak Pablo!** 12 urte egin dituzu txapeldun! Muxu handi bat aita, ama Mario, Luigi eta Zeldaren partez!!



**Zorionak Manex, Ane eta Mikel!** Urtarrilaren 18an, 27an eta otsailaren 26an urteak beteko dituzue. Zorionak etxekoen partetik!

## JAIOTZAK

**Nagore Goikoetxea Lizeaga,** XII. 16
**Jakes Molano Gil,** XII. 17
**Elene Beristain Merino,** XII. 21
**Anne eta Jon Iparragirre Lizaso,** XII. 26

## HILDAKOAK



**Jose Maria Lurgain Urbiondo**
urtarrilaren 8an hil zen, 81 urterekin

## HILDAKOAK



**Isabel Aranguren Pagola**
Urtarrilaren 5ean hil zen, 82 urterekin

**J. A. Manterola Arruabarrena,** urtarrilaren 9an hil zen 51 urterekin


Lurda
purtxileria
USURBILEN IREKI BERRIA!!!
kale Nagusia 6, 943 37 35 87 (Bake epaitegi ondoan) USURBIL


OTEGI
Sagardotegia
29an (larunbata) irekitzen dugu!
·Urte guztian irekita
·Igande gauetan eta astelehenetan itxita
·Larunbat eta igande eguerditan enkarguz
Solla enea Baserria
Zabaleta auzoa· Lasarte-Oria
943 365 029


Urtinea Lorategia
Frutarbolak aldatzeko sasoia
Aukera zabala:
* Bertako sagar barietateak
* Udareondoak, gereziondoak, aranondoak, intxaurrondoak, pikondoak,kakiak, kiwiak...
* Fruitu txikidun zuhaixkak: mugurdiak, anderemahatsak, feijoak...
San Esteban auzoa
☎ 943 362 255 Faxa: 943 366 054
E-mail: urtinea@urtinea.com

# TXOTX!!



AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com